



## Hizkuntza-programa



# Ingelesa



## Helburuak

Jarduera honen helburua, ikasleek egungo, entretenigarri eta bakoitzak dauan mailari egokitutako metodologiaren bidez, ikastea izango da. Beraz, Hezkuntza formalaren osagarri dan jardue-  
ra izango da. Ikuspegi metodologikoak, komunikazioan oinarrituz, adimen anitzak, pentsamendu errutinak eta lan kooperatiboa hartuko dauz aintzat. Azken baten, gure ikasleek Cambridge Language Assessmenten zenbait azterketa ofizialek ezarritako maila bera arrakasta osoz erdiestea izango dogu helburu.

Haur Hezkuntzan, Jolly phonics metodoa erabiliko da. Umeez, ingelesaren fonetika barneratzeko liburuxka izango dabe. Gelan liburua erabiltzeaz gain, beste dinamika batzuk be erabiliko dira. Dinamika honeen artean jokoak, abestiak, ipuinak, flashcards-ak, marionetak... egongo dira. Metodo honen bidez, umeez letrak eta soinuak ikasiko dabez; xedea, ulermena hobetzeko, ingelesaren soinuak ikastea izango baita.

Lehen Hezkuntzan ikasleek, hizkuntzaren arlo guztiak garatuz, Cambridge Young Learners maila lortzeko prestatuko doguz.

## Informazio erabilgarria

### TALDEAK

Taldeak 8-12 ikasleek osotuko dabez.

### MATERIALA

- Haur Hezkuntzako ikasleek Ikastolak eskatuko dauan Jolly Phonics testuliburua erosi beharko dabe.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek Ikastolak eskatuko dauan testuliburua erosi beharko dabe. Aurrekoaz gain, koadernoak be beharko dabe.
- Maila guztietako ikasleek, Haur Hezkuntzakoek barne, arkatz, borragoma eta margoak dauzan estutxea ekarri beharko dabe.



### HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte  
JOLLY PHONICS

### LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila	3. - 4. maila	5. - 6. Maila
STARTERS	MOVERS	KET
[pre A1]	[A1]	[A2]

# Euskera tailerra

## Helburuak

Jarduera honek euskera ikasgaia indartzea eta sakontzea izango dau helburu. Beraz, ikasgelan lantzen diran hizkuntza konpetenziak landuko dira. Batez be, ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena landuko da. Horretaz gain, hizkuntza-formak be landuko dira.

## Taldeak

Taldeak 6-10 ikaslek osotuko dabez.

## Materiala

Koaderno eta estutxea.



LEHEN HEZKUNTZA

5. - 6. maila

EUSKERA TAILERRA